



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Argizaria: bizitzaren eta heriotzaren artean

**P**aris, 1845. Frédéric Bastiat (1801-1850) ekonomialari eta politikari lapurtarrak *Pétition des fabricants de chandelles* (Kandelagileen eskaera) satira idatzi zuen. Protekzionismoaren aurkari sutua, kandelagileek "bere argia salneurri baxuegitan eskaintzen duen lehiakide atzerritar baten konkurrentziaren" aurrean babeska eskatzen zutela zioen ironiaz; atzerriko argi hornitzaile hura Eguzkia zen.

Satirak satira, XIX. mendearen erdialdean kandelagileen industria gailurrean zegoen, 1834an Manchesterren Joseph Morgan artisauek ekoizpen mekanizatu ahalbidetzen zuen makina patentatu ondoren. Baina, Eguzkia bera baino lehiakide gogorragoak iritsi ziren berehala; kerosenozko lanparak lehenik eta, gero, 1879an, bonbilla gorriak.

Hori baino lehen, Euskal Herrian ere kandelagintza indartsu zegoen. XVII. mende hasieran, esaterako, Gasteizen argizaria lantzen zuen gremioa garrantzitsuenetakoa zen. Beste toki batzuetan, adibidez, Tolosaldean, kandelagintza eta papergintza eskutik joan ziren, biek lehengai bera erabiltzen zutelako: parafina. Eta antzeko zerbait gertatu zen gozogintzarekin. Gozogileek erleen ez-tia erosterekin bat, argizaria ere eskura zeukaten –eta hainbat kasutan, Bastiatek hainbeste gorroto zituen lege eta arau protekzionistek argizaria ere erostera behartzen zituzten gozogileak-. Gainera bi jardueretan antzeko ontzi eta tresnak erabiltzen zituzten. Hala, zenbaitek bi produktuak batera ekoiztu zituzten eta, beste batzuek, aldiz, jarduera batetik bestera egin zuten jauzi. Esaterako, Norberto Nafarrete XIX. mende bukaeran Donostian zeukan txokolata enpresa Agurainera mugitu zen eta han argizaria landu zuen Nafarrete fabrikak 1960ko hamarkadan ateak itxi behar izan zituen arte.

Fabrika hartan egiten ziren kandelak erabilera erlijiosoa zuten; bizidunak argizariaren merkaturia izateari utzia zioten eta hildakoei argia emateko erabiltzen ziren nagusiki.



TOLOSALDEA.EUS

Amezketako San Bartolome elizan oraindik argizaiolak pizten dituzte urtero, baina ohitura horri eusten dioten salbuespen bakaretakoa da.

Tolosaldean, kandelagintza eta papergintza eskutik joan ziren, lehengai bera erabiltzen zutelako: parafina. Eta antzeko zerbait gertatu zen gozogintzarekin

Kandelak erritualetan erabiltzeko ohitura Antzinarotik dator eta egun hainbat erlijiotan erabiltzen dira. Katolizismoan hildakoei lotutako erritualetan pisu handia izan du argizariak. Euskal Herrian, tradizioz, argizaiolak –eta haien inguruan kiribildutako bildumenak– erabili izan dira hildakoen omenezko zeremoniatan.

## ARGIZARIA ETA DOLUA

Hildakoak elizetan ehortzita zeuden garaian, eta familiek beren belaunalki propioak zituztenean, argizaiolak pizten zituzten arrastoen aurrean. Baina hildakoak hilerrietan ehorzteko eta elizetan zeudenak handik ateratzeko ohitura zabaldu ahala, argizaiolak itzaltzen joan

ziren, eta azken kolpea Vatikanoko II. Kontzilioak eman zuen 1965ean, belaunalki indibidualak banku jarraiez ordezkatzeko erabaki zuenean. Amezketako San Bartolome Elizan ez zuten aldaketa hura egin, eta belaunalkiak erabiltzen dituzte oraindik. Eta urtero argizaiolak pizten jarraitzen dute beren hildakoei argia emateko.

Baina, salbuespenak salbuespen, argizaria lantzeko eta hildakoen omenez pizteko ohitura galduta dago gurean. Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateak, udako ikastaroen egitarauan, "Argizari galduta: artxibategiak, ezagutzak eta sorkuntza" ikastaroa egingo du Baionan uztailearen 19an, izen bereko programa zabalaren barruan. Besteak beste, argizariaren ekoizpenari lotutako ezagutza teknikoak nabarmentzea eta babestea du helburu ikastaroak, "desagertzeko arriskuan dagoen artisautea baita". Baina horrez gain, aspaldiko praktika horiek bizidunen eta hildakoen arteko harreman estu eta naturalagoa bermatzen zutela nabarmentzea du xede, argizaria galduta bizitzaren eta heriotzaren arteko lotura hori ere galtzen dela. ●